

2012KO OTSAILAREN 9AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Bederatzia.

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hamabia.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortzietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

ETORRI GABEA: Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2012ko urtarrilaren 18ko aktaren berri eman ondoren, bilera horretara etorri zirenak aho batez onartu dute.

2.- KONTRATUAREN ALDAKETA. Parke, lorategi, gunee berde eta zuhaitzen mantentze zerbitzuari buruzkoa.

Ezagutzera eman da 2011ko abenduaren 12an jaso zela GOROLDIren idatzia, adieraziz Udalarekin duen urteetako harremana eta egungo egoera ekonomikoa dela eta Beasaingo udalarekin duen, parke, lorategi, gunee berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzuari buruzko kontratuaren prezioa 2012.urterako 2011ko prezioak mantentzea proposatzen duela. 2012ko urtarrilaren 17an zerbitzu batzordeak ontzat eman zuen Goroldik egindako proposamena. Horrek kontratuaren aldaketa suposatzen duenez, 2012. urterako KPI aplikatu gabe uzten delako, kontratazio-organoari, hau da, Gobernu Batzordeari dagokio kontratu horren aldaketa onartzea.

Bozketa eginda aho batez onartu da, Beasaingo udalerriko parke, lorategi, gunee berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzuari buruzko kontratua 2012. urterako aldatzea. Aldaketa honetan datza: 2012. urtean, 2011ko prezioa mantendu, KPI aplikatu gabe. Beraz, 2012. urterako kontratuaren prezioa, 281.968,74 €koa izango da.

3.- OBRAK ESLEITZEA. Seaska Haurreskola berrikuntzaren proiektuari buruzko obrak esleitzea.

Puntu honetan, 2012ko urtarrilaren 30eko kontratazio mahaiak egindako proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

1.- 2011ko azaroaren 18an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen, prozedura irekiaren bitartez eta publizitatearekin haurreskola Seaska berritzeko obrak kontratatzea.

2.- Deialdia, 2011ko azaroaren 23ko GAOean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epean lizitaziora, 29 enpresa aurkeztu ziren.

3.- 2012-01-16an, kontratazio mahaiak pertsonalitate eta kaudimenari buruzko kartazalaren edukia kalifikatu zuen eta egun horretan bertan proposamen ekonomikoak ekintza publikoan ireki ziren. Esleipen-irizpidea, prezio baxuena ezarri zen.

4.- Ekintza horren emaitza, proposamen honekin batera atxikitzen dena da.

5.- PIEDRAS NATURALES RAVI enpresa izan zen prezio merkeena eskaini zuena, baina kaudimena behar bezala egiaztatu ez zuenez eta pleguaren arabera proposamen ekonomikoari atxiki beharreko memoria ekonomikoa falta zenez, hiru laneguneko epea eman zitzaion dokumentazioa osatzeko. Aurkeztu eta aztertu ondoren, emaitza honekin batera doan txosten teknikoan azaltzen dena da eta horren ondorioz enpresa hori lizitaziotik kanpo geratu da.

6.- Hurrengo eskaintza merkeena (A kartazaleko dokumentazioa zuzena da) teknikoaren arabera, proportzionaltasun gabekoa izan daiteke eta horren ondorioz eskatu zaio, aurkeztutako eskaintza justifikatzeko, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuaren 152. artikulua xedatutakoaren arabera.

7.- 2012-01-26an, aipatutako dokumentazioa jaso da eta ondorioztatu daiteke, betidanik teknikoak diotenaren arabera, Urbycolan & Grama, denboraldirako enpresa elkarteak obrak ondo egin ditzakeela eta Administrazioaren on iritzia jaso.

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak, Gobernu Batzordeari ondorengo ERABAKI PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik. Haurreskola Seaska berritzeko obrak, Urbycolan & Grama, denboraldirako enpresa elkarteari esleitzea, beti ere hamar laneguneko epean, errekerimendua jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasita ondorengoak ekartzen badu:

- Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egotearen agiria.
- 9.859,22 €ko behin betiko fidantza.
- Denboraldirako enpresa elkartearen eratzeari buruzko eskritura publikoa.

Bigarren. *Esleipena, 197.184,36 €tan + 35.493,18 € BEZri dagokiona, kopuruan egiten da eta egikaritze epea, 12 astekoa izango da.*

Hirugarren. *Lehenengo puntuan adierazitakoa betetzen denean, behin betiko esleipena egingo da eta horretarako Alkateari baimena emango zaio.*

Laugarren. *Jarraian, kontratu administratiboa sinatuko da.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritzia azaldu dituzte:

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE) aurkako botoa emango duela adierazi du, lehen ere Haurreskola handitzeko proiektua onartu ez zutelako, izan ere beraien ustetan haurreskolaren gaia beste era batetan planteatu behar da.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, EAJ, H1)

Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Etorri gabea: 1

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da Kontratazio mahaiaren proposamena.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko zortziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizenez, akta hau idatzi eta sinatu dut.